

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5210

*1888/2014 EBAZPENA, azaroaren 18koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Jesús M.<sup>a</sup> Larrañaga Garitano jauna Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente izendatzen duena.*

Aztertu dugu Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen urriaren 3ko 1303/2014 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2014ko urriaren 14ko EHAAn (195.zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak «curriculum vitae»-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Jesús M.<sup>a</sup> Larrañaga Garitano jauna deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

#### EBAZTEN DU:

Lehena.– Jesús M.<sup>a</sup> Larrañaga Garitano jauna izendatzea Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente.

Bigarrena.– Izendapen honek 2014ko azaroaren 24tik aurrera emango ditu ekonomia eta administrazio ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 18a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.